

2020ko irailaren 22a, asteartea

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSASUN SAILA

## 3776

*AGINDUA, 2020ko irailaren 14koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Osasun Sailean behin-behineko langilea izendatzen baita.*

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28. artikuluan ezarritako ahalmenez baliatuz, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eman duen txostenarekin bat etorriz, eta horretarako aurrekontu-kreditua badagoenez,

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Nerea Antía Vinós andrea kudeaketa estrategikoaren aholkulari izendatzea Osasun Sailean; kodea: 5274; dotazioa: 1; maila: zuzendaria.

Bigarrena.– Egin beharreko zereginak aholkularitza-lanpostu bati dagozkionak izango dira, eta atxikitzen zaion esparruaren berariazkoak.

Hirugarrena.– Interesdunak eskubidea izango du, lege horretarako eskatzen diren betekizunak betetzen baditu, Goren Kargudunen Lansariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 3.1 edo 5.1 edo 5.2 artikuluetan jasotako aurreikuspenen bat edo guztiak aplika diezazkioten.

Laugarrena.– Izendapen honek 2020ko irailaren 8an izango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Halaber, agindu honen bidez ezartzen den zerbitzu-zerrenda automatikoki iraungita geratuko da izendapena egiten duen organoaren titularraren kargu-uztea gertatzen denean, hargatik eragotzi gabe lehenago ere errebokatu ahal izatea.

Bosgarrena.– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko zaio organo honi hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 14a.

Osasuneko sailburua,  
MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.